

ELISABETHEN MALKO MIRESGARRIAK



S.Monica

Orain dela 36 urte, zeruan izarrik ez zeudenean, Gasteiz izeneko herri txiki batean, 10 urteko Elisabeth izeneko neska elbarritu bat bizi zen.

Elisabeth zerutik eroritako aingerua zirudien. Elisabeth zilar koloreko ilea zuen, begiak, berriz, udako zeruarenak, espainak larrosak, eta azala elur kolorekoa.

Farre egiten zuenean bere hortz ileratuak ziren eta zuri distiratsuak ikusten ziren bere aurpegian. Nahiko altua zen baina beti bere gurpil aulkian eserita zegoenez ia inork ez zekien. Neskatto gaixoa oso triste zen eta lotsatia gainera, gutxitan bere aurpegian ikusten zenuen irribarrerik.



Egun batean aitonak bainujantzi more bat erosi zion Elisabethi eta neskatoa hartu, aulkian eseri eta errekarara joan ziren. Aitonak neskatoa uretan sartu zuenean, honek esan zion:

-Eskerrak uda dela, bestela behatzak izoztuko zitzaidan!!!

-Lasai, Zadorrako urak beti du temperatura berdina.

Aitonak igeri egiten erakutsi zion eta egun hartatik biok batera errekarara joaten ziren igeri egitera.

Egun batean, aitona oso gaixorik jarri zen eta hil baino lehen hauxe esan zion:

-Elisabeth maitea, dakizun bezala ez naiz betirako biziko eta ordua iritsi zait. Baina mesede bat egidazu ... ez utzi igeri egiteari, zuretzat oso ona da eta.

Aitona hil ondoren, Elisabeth oso triste zegoen, errekarara joateko gogo gutxi zuen, baina aitonari egunero joango zela agindu zion, eta joan behar zela uste zuen.

Neskattoa errekarako bidera abiatu zenean, amak hauxe esan zion:

-Alaba maitea, errekarra ezin duzu bakarrik joan, ni ortuan lan egin behar dut, eta aita zaldiak ferratzen ari da. Igeri lekuri izango bagenu...

Elisabeth sarritan joaten zen lorategira, lorrosa usaina eta loreen koloreak asko gustatzen baitzitzaizkion. Baina egun hartan, ez zen joan, irakurtzera eta negar egitera joan zen. Eta negarrez, hauxe oihukatu zion zeruari:

-Zergatik zaude nire aurka? Lehenengo aitona, gero errekarrik ez, zer egin dizut nik, eh??

Bat-batean iratxo bat agertu zitzaion eta esan zion:

-Nik entzun dizut, neska gaixoa. Iratxo miresgarria naiz... eskatu nahi duzuna eta izango duzu, baina hildakoei ezin diet bizitza eman.

-Beno, nire aitonarekin egotea nahi nuen, baina

...igeritoki batekin konformatuko naiz.

Neskatoak esan bezain laster, bere lorategian izugarrizko igeritoki bat agertu zen. Amak hain liluraturik ikusterakoan, ez zion galdetu nola agertu zen igeritokia. Egunero igeri egitera jaisten zen eta horrela ibiltzen hasi ere.

Egun batean negar egiten zegoela, gauza miresgarri bat gertatu zen, badakizue zer ... malkoak zeruruntz abiatu ziren eta han geratu ziren. Horregatik zeruruntz begiratzen dugunean, izarrek egiten duten irudiek Elisabethen oroitzapenen irudiak dira.

